



## Andeetako Animaliak

1

### Helburuak

**Hizkuntza aniztasuna ezagutzea**

**Jatorrizko herrialdeetako hainbat hizkuntzen egoera ezagutzea**

**Hegoamerikako herrialde eta bertako animaliei buruzko informazioa ematea**

2

### Azalpena

Jatorrizko herrialdeetako animaliak eta hizkuntzak ezagutzea izango du helburu ariketa honek. Munduko lurralde ezberdinetako hizkuntzekin egin daiteke ariketa. Kasu honetan, Andeen inguruko animaliak eta hizkuntzak hartu dira oinarri.



**Llama**, gamelidoen familiakoa, hots, gameluen familiako ugaztuna da. Karga garraiatzeko eta haragia eta lana eskuratzeko baliatzen dira. Andeen inguruko goi-lautadan bizi dira. **Aimara** hizkuntzan, **“Qwara”** deitzen da. Aimara hizkuntza, jatorrizko hizkuntza da eta Argentina, Bolibia, Ekuador, Txile eta Peruko hainbat lurraldeetan hitz egiten da.

**Puma**, edo “mendiko lehoia”. Ameriketako kontinente osoan aurkitzen den felido ehiztari haragijalea da. Ameriketako kultura indigenetan garrantzia handia du pumak, Cusco (Peru) Inken hiriak adibidez, puma baten forma du. Puma hitza, quechueraren mailegu bat da. **Guaranieraz, “Yagua Pytá”** deitzen zaio eta “piztia koloretsua” esan nahi du. Guarana, Paraguaiko ia herritar guztiek hitz egiten dute eta Argentina, Bolibia, Brasil eta Uruguaike lurralde batzuetan ere hitz egiten da.





**Kondorra**, Andeen inguruan bizi den hegazti sarraskijalea da. Andeen inguruko kultura ezberdinetakoentzat Kondorrak esan nahi berezia du. Izan ere, bertako kultura ezberdinentzat sinesmenetako baliatzen da. Inkek, esaterako, Kondorra hilezkorra zela uste zuten. **Quechueraz**, "**Kuntur**" deitzen da. Quechuera, Txile, Argentina, Bolibia, Peru, Ekuadorren eta Kolonbiako hegoaldean hitz egiten da.

Andeetako animaliak eta hizkuntzak kontuan hartuz hainbat ariketa egin daitezke:

1. Hizkuntza bakoitza eta animalia bakoitza mapamundi batean kokatu.
2. Animalien adiera jatorrizko hizkuntza bakoitzean ikasi.
3. Animalia bakoitza marraztu eta jatorrizko hizkuntzaren izena eta animaliaarena idatzi.
4. Ikasleak hiru animalien baitan banatu. Antzerki bat egin, animalien mutur itxura duten maskarak eginez.

Ariketa honen xedea, beste lurralde bateko aniztasuna ezagutzea da. Honela, irakasleak, lurralde ezberdinak, animalia ezberdinak, kultura ezberdinak eta hizkuntza ezberdinak daudela baloreen ipiniko du eta aniztasun horrek aberastasuna dakarrela aldarrikatuko.

### 3

## Oharrak

**Natura, Gizarte eta Kultura Ingurunearen ezaguera ikasgaietan lantzeko aproposa.**

Unitate didaktiko hau ikasgelako hizkuntza aniztasuna jorrazteko baliabidea da. **Lingolang.net** webgunearen osagarri da.